

JARDUNBIDE EGOKIEN GALDETEGIA

BERDINTASUN-PRAKTIKA ONAK KUDEAKETAN

KUDEAKETAKO BERDINTASUN-PRAKTIKAREN TITULUA:

Berdintasunerako antzerkia: **Gure boterea zentroan. Gorputzetik ekintza sozial zehatzera**

EKIMENAREN HELBURUAK:

Helburu orokorra

- Ahalduntze pertsonal eta politikoko prozesu bat bizi izatea, eta hala, gorputzetik abiatuta eta antzerkiaren bidez, prostituzioan diharduen emakume-talde baten eraldaketan eragitea.

Helburu espezifikoak

- Emakume parte-hartzaileen artean elkarri laguntzeko sarea sortzea.
- Espazio publikoa hartzea, protagonismoz.
- Parte-hartzaileek eta herritarrek (publikoak) partekatutako diskurtsoak sortzea.
- Bakoitza bere historiaren protagonista izatea.
- Prostituzioan diharduten pertsonen errealitateari buruz gizarteak duen ikuspegian eragitea.

ENTITATE ARDURADUNA:

ARABAKO HIESAREN KONTRAKO BATZORDEA – SIDÁLAVA

EMAKUMEZKO LANGILEEN KOPURUA: 51 **Emakumeen ehunekoa plantilla osoan: % 81**

GIZONEZKO LANGILEEN KOPURUA: 12 **Gizonen ehunekoa plantilla osoan: % 19**

WEBGUNEA: sidalava.org

JARDUNBIDE EGOKIAN PARTE HARTZEN DUTEN BESTE ENTITATE BATZUK:

Erein – Zapalduon Antzerkiaren Kolektiboa:

Gune feminista horretan, emakume zapalduen antzerkia, taldeen eraketa eta talde-dinamikak erabiltzen ditugu geure burua pentsatu, ulertu eta eraldatzeko tresna gisa, maila indibidualean zein kolektiboan.

Espazio horretan, ohiko jardunbideak zalantzan jartzen ditugu, begi-bistakoa dena agerian uzteko, alternatibak bilatzeko eta autoezagutzan sakontzeko. Ereinek udal, elkarte eta gizarte-mugimendu askorekin egin du lan orain arte, antzerkiaren bidez ahalduntze-prozesuak jorratuz, eta foro erako hainbat antzerki-lan egin ditu.

Kolektivo Monstrenko:

Lankidetzaren bidetik, talde horrek Monstrenka aretoa laga du lantegia, entseguak eta emanaldi publikoak egiteko.

HASTE-DATA: 2021etik, urtero egiten da jarduera.

HARREMANETARAKO PERTSONA:

Claudia Martínez: Nahikari programako gizarte-langilea

Ana Girón: Sidálavako koordinatzailea

HARREMANETARAKO TELEFONOA:

945 257 766

HARREMANETARAKO HELBIDE ELEKTRONIKOA:

nahikari@sidalava.org, coordinacion@sidalava.org

HITZ GAKOAK: Aukeratu praktikarekin loturarik handiena duten **3 kontzeptuak**:

	Estrategia
	Pertsonak
	Aliantzak
	Hornitzaileak
	Gizarte Erantzukizun Korporatiboa
	Erakunde-eredua
	Zeharkakoa
	Kualitatiboa eta kuantitatiboa
	Kudeaketa sistematikoa, metodologia edo prozesua
	Diagnostikoa
	Berdintasunerako plana
	Ikerketak eta genero-analisiak
	Estrategian integratzea
	Feminizidioa
	Genero-indarkeria
	Arriskuen prebentzioa
	Komunikazio eraginkorra / komunikazio ez-bortitza
	Barne-komunikazioa
	Kanpo-komunikazioa
	Hizkuntzaren erabilera ez-sexista
	Soldata-gardentasuna
	Soldata-arrakala
	Berdintasunerako kanpainak
	Prestakuntza eta sentsibilizazioa
	Mentoretza
	Barne-promozio ez-sexista

	Emakumeak sartzea ordezkariak txikia duten eremuetan
	Batez ere emakumeen edo gizonen sektorea
	Emakumeen parte-hartzea
	Kontziliazio erantzunkidea
	Denboraren eta espazioaren antolamendua
	Zaintzak eta bizitzaren jasagarritasuna
	Segurtasuna, Osasuna eta Ongizatea
	Bezeroentzako/erabiltzaileentzako arreta
	Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutakoaren protokoloa
	Lan-baldintzak
	Ordainsari-politika
	Sailkapen profesionala
	Kristalezko sabaia
	Parekotasuna
	Berdintasunerako lidergoa / lidergo feminista
X	Interseksionalitatea, aniztasuna
	Emakume erreferenteak ikusaraztea
	Autodefentsa feminista
X	Emakumeen ahalduntzea
	LGTBIQ+ politikak
	Berdintasunarekin konprometitutako maskulinitateak
X	Esku-hartze soziala

ERAKUNDEAREN SEKTOREA:

	Hezkuntza
	Industria
	Zerbitzuak
X	Osasuna
	Zerbitzu publikoak / Administrazio publikoa
X	Gizarte-zerbitzuak
	Bestelakoak

DESKRIBAPENA

Nahikari programa: jardueraren esparrua

Aurkeztzen ari garen praktika **Nahikari programaren** esparrukoa da. **Gasteizen eta Araban prostituzioaren alorrean lan egiten duten pertsonen gizarte-arreta eta laguntza eskaintzea** da programa horren xedea. **Banakako, taldekako eta komunitateko** esku-hartzeak aurreikusten ditu, arreta jasotzen duten pertsonen beren premiak betetzen eta bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko. Urteetako lanaren ondoren, **Nahikari programa erreferentziazkoa** da kalitatezko arreta pertsonalizatua. **Jardunbide egokitzat jo zuten Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren 2011ko dirulaguntzen deialdian**. Esperientzia eta aurrez aurreko harremana oinarritzat hartuta, kontuan hartzen ditugu prostituzioan jarduteari lotutako baldintzatzaile bereziak; hau da, horretan diharduten pertsonen bizi duten estigmak — barnekoak (arbuioari beldurra) eta gizarte-mailakoak— eragiten dituenak.

Talde oso heterogeneoarekin egiten dugu lan. Pertsonarik gehienak jatorri atzeritarreko zis eta trans emakumeak dira, zaurgarritasun biologiko, psikologiko, sozial eta kultural handikoak. Prostituzioaren fenomenoari heltzeko orduan, garrantzitsua da askotariko alderdiei — sanitarioei, sozialei, psikologikoei, lanekoei, legezkoei eta abarri— erreparatuko dien ikuspegi integrala kontuan hartzea. Ildo horretatik, pertsona horien zaurgarritasun-egoera minimizatzen lagunduko duten ekintzak bideratzen ditugu.

Eskaintzen dugun arretaren oinarri dira:

- **Hurbiltasuna.** Arreta pertsonalizatuaren eta landa-lanaren bidez lortzen dugu. Hilean behin prostituzioan jarduten duten lekuetara joaten gara bisitan, eta, horrela, aukera dugu zuzeneko harremanaren bidez errealitatea behatzeko, artatzen ditugun pertsonen egoeraren berri jasotzeko eta leku horien (pisuak, klubak edo kaleko gunek) egoera eta baldintzak ezagutzeko. Informazio hori jaso ondoren, aztertu eta interpretatu egiten dugu, gauzatuko ditugun ekintzak diseinatzeko.
- **Lotura eta gizarte-laguntza.** Horien bidez, pertsona partaide izateaz gain, protagonista ere baduen laguntzazko harreman bat ezartzen dugu, haren moldaera autonomia eta gizarteratzea hobetzeko. Horrela, pertsonari aukera ematen zaio bere egoera aztertzeko, bere autonomia pertsonala mantendu edo garatzeari buruz eta gizarteratzearen (gizarteratzeko laguntzaren) inguruan dituen helburuak zehazteko eta, helburu horiek lortzeko, prozesuan zehar lagundu ahal izango dion erreferentziazko pertsona bat izateko.
- **Laguntza-sareen sorrera eta ahalduntze indibidual eta kolektiboa.** Emakume horien egoera ageriko egiteko eta giza eskubideen ikuspegitik errebindikatzeko ekintzak gauzatzen ditugu, taldean eta komunitatean.

Era guztietako indarkeria-egoerak bizitzeko bereziki **zaurgarriak** diren pertsonekin egiten dugu lan; adibidez, hauek: gizakien salerosketa sexu-esplotaziorako, bortxaketak, eraso fisikoak, irainak, mehatxuak, laidoak, sexu ez-seguruan aritzeko eskaerak, sexu-zerbitzuetan substantzia toxikoak kontsumitzeko eskaerak eta abar. Fenomeno ezezaguna eta ikusezina da gizartearen gehiengoarentzat. Talde horrek indarkeria-egoeren aurrean duen zaurgarritasuna areagotu egiten da prostituzioaren jardunak duen testuinguru prekarioagatik eta berme faltagatik, eta gizarte-arauen aurkako jardura delako. Ondorioz, pairatzen dituzten arazoen errudun eta erantzuleztat jotzen ditu gizarteak pertsona horiek; are gehiago, jasaten dituzten indarkeria-egoeren arduradun egiten ditu.

Prostituzioan dihardutenen gaineko **estigma** dela eta, pertsona horiek azpikategoria batean sartzen ditu gizarteak, eta horrek handitu egiten du haien isolamendua, haien inguruko isiltasuna. Gainera, estigma horrek errudun-sentimendua sorrarazten du haiengan, eta gertatzen zaiena ezkutatu eta gezurretan aritzeko beharra sentitzen dute, jendeak zertan aritzen diren jakin ez dezan.

Definizioz, estigma «ospea sakonki zikintzen duen ezaugarria» da (Goffman, 1963). Nolanahi ere, ez da ezaugarri hutsa, estigmatizatutako pertsonaren eta gizarteko gainerako pertsonen arteko harreman jakin batzuk baitakartza berarekin. Horrelako harremanek mekanismo estigmatizatzaileak (diskriminazioa, arbuioa, isolamendua eta abar) jartzen dituzte abian eta, aldi berean, pertsonari estigma kudeatzen lagunduko dioten estrategiak aktibatzen dituzte, ondorio negatiboak arintze aldera.

Estigmatizazioa eta **diskriminazioa** mekanismo indartsuak dira, eta ondorio bikoitza dakarte: batetik, eragindako pertsonenganako mespretxua sortzea eta, bestetik, pertsona horiek estigmari aurre egiteko dituzten trebetasunak edo estrategiak oztopatzea, berdin dio zer kolektibotako pertsonen ari garen —GIBa dutenak, prostituzioan dihardutenak edo bazterte-egoeran daudenak—.

Estigma eta diskriminazioa leku eta egoera askotan azaltzen dira: etxean, komunitatean, lanpostuan, osasun- eta hezkuntza-zerbitzuetan eta abarretan. Azken finean, askotariko eremu horietan giza eskubideak ukatzen zaizkie pertsonen. Estigmak eta diskriminazioak isiltasunaren eta ukazioaren kultura sortzen dute, eta zaila izaten da egoerari aurre egiteko beharrezkoak diren ekintzak aurrera eramatea.

Hori dela eta, estigma eta diskriminazioa gutxitzekotan, nahitaezkoa da **ahalduntzea**, informazioaren eta prestakuntzaren bidez. Proiektuan aktiboki diharduten profesionalen bideratzen dituzten ekintzetan errespetua, hurbiltasuna eta laguntza dira oinarria. Sentimendu positiboak, pertsonengana eta baliabideetara hurbiltzea sustatzen dituzten jarrerak eta harremanak sortzea lagungarria da eragindako pertsonen babesgabetasuna gutxitzeko eta laguntzen zirkulua zabaltzeko.

Aurkezten ari garen *Jardunbide Egokia* bat dator Nahikari programaren lan-ildoen bereizgarri diren helburu nagusiekin: gure ingurunean prostituzioan diharduten pertsonen egoera ageriko egitea eta Gasteizen eta Araban prostituzioan dihardutenak ahalduntzea, gizarteratzea eta haien segurtasuna bermatzea.

Antzerki-laborategia: aurrekariak

2015ean *Empodérate* (Ahaldundu) izeneko jarduera jarri zen martxan Nahikari programan. Prostituzioan diharduten pertsonen haien **ahalduntzea** lantzea da jardueraren xedea, eta, horretarako, **genero-gaien inguruko lantegia** egitea. Horren bidez, pertsona horiei sentitzen eta bizitzen dutena partekatzeko aukera emateaz gain, kontzeptu erabilgarriak eskaintzen zaizkie, beren genero-izaera eta egiten duten lana ulertzeko. Emakumeen eta gizonen arteko desberdinkerien inguruko gogoetaren bidez, beren egoerari aurre egiteko tresnak bereganatzen dituzte, bai eta autoestimua eta norberaren buruaren gaineko balorazioa indartzeko eta ahaldunduz joateko ere.

Lan horretatik abiatuta, «beren historia kontatzeko» beharra sortu zen emakumeen artean, eta 2016an **no sigo el guión... dokumentala** egin zen (<https://www.youtube.com/watch?v=ZUfGtXin6jM&t=4s>). Lan hori eredugarria da, arreta

eskaintzen zaien pertsonak baitira benetako protagonistak, eta lehen pertsonan azaltzen baitituzte beren bizitza-testigantzak.

Ordutik aurrera *Empodérate* jarduerak bere tokia du Nahikari programan, eta urtero askotariko ekintzak egiten dira. 2021ean, **Berdintasunerako antzerkia: Gure boterea zentroan. Gorputzetik ekintza sozial zehatzera** proiektua jarri genuen abian.

Garrantzitsua deritzogu esku hartzen ari garen askotariko errealitatea hurbiltzeari, eta prostituzioan diharduten emakumeen egoera genero-ikuspegitik aztertzeari, esku hartzeko estrategiak **haien partaidetzarekin** planteatzeko. Garrantzitsua da, halaber, gizarte osoarekin lan egitea, estereotipo baztertzailleak eraisteko eta gaiaren inguruan dauden aurreiritziei aurre egiteko. Prostituzioari buruz bakoitzak duen iritzia edozein dela ere, horretan jarduten duten **pertsonak eskubidedunak dira eta errespetua merezi dute**. Oro har, handia da mundu horri buruzko ezjakintasuna, eta aurreiritzi asko dago. Horregatik, beharrezkoa da prostituzioan diharduten pertsonen giza eskubideen alde apustu egitea.

Illo horretan, pertsona horiek **subjektu kritiko eta aktiboak** direnez, **haien jakintzak eta protagonismoa kontuan hartuko** dituzten jardueren alde egiten dugu, giza eskubideen defentsa eta antzeko printzipioak oinarri hartuta, pluraltasunetik eta dibertsitatetik, elkarrekin hazi eta aberasteko. Haien errealitateari «dagozkien eskubideen» ikuspegitik heltzen diogu beti, ezarri zaien jarrera biktimista eta pasiboa gaindituz; izan ere, horrek ikusezin egiten ditu, eta zaugarritasun-egoeran jartzen ditu.

Antzerkiak erraztu egiten du programan artatzen ditugun zis eta trans emakumeen parte-hartzea eta prestakuntza. Horrenbestez, Teatro de las Oprimidas —El laboratorio Magdalenas— elkartearen proposamenari heldu diogu, eta prozesuan segurtasuna eta egonkortasuna bermatzen dien giroa sustatu dugu.

Urteetako lanaren ondoren ikusi dugunez, ekintza horrek ahalduntze pertsonal eta kolektiborako prozesua dakar. Laborategian egoera pertsonaletik abiatzen gara, eta partaide diren emakumeen gorputza eta adierazpen-hizkuntza edo pentsamendu sentikorretan oinarritzen gara egunerokotasunean bizi dituzten zapalkuntzak lantzeko. Ondoren, arlo pertsonala lan kolektiborako gune batera eramaten dugu, emozioekin konektatu eta esanahi politikoak hornitzeko.

Ageriko egiteko, balioa emateko eta ahalduntzeko prozesua da, emakumeei aukera emango diena pairatzen dituzten zapalkuntzen berezitasunez gogoeta egiteko, ideiak eta proposamenak trukatzeko eta elkar indartzeko, eta neurri eraginkorrak bilatzen ditu, hegemonikoa den sistema patriarkalak haien gorputzetan eta bizitzetan eragiten dituen zapalkuntzak gainditzeko.

2024an Berdintasunerako antzerkia: Gure boterea zentroan. Gorputzetik ekintza sozial zehatzera ekimenaren **laugarren edizioa** egin dugu.

Taldearen ezaugarriak:

Bederatzi lagun bildu dira taldera (4 emakume zis eta 5 emakume trans). Horietatik zortzi Latinoamerikakoak dira eta bat Gasteizkoa. Taldea askotarikoa da adinei dagokienez: gazteenak 32 urte ditu eta zaharrenak 71. Emakume atzeritarren erdia egoera irregularrean dago, eta guztiek hiru urte baino gehiago daramatzate gure lurraldean bizitzen (erdiak 10 urtetik gora). Taldeko lau emakumek gizarte-zerbitzuen arreta jasotzen dute. Gehienak 5 urtez baino gehiagoz ari dira pisuetan lanean. Lau zis emakumeei seme-alabak dituzte.

Clandestinas izena jarri diote taldeari, egunerokoan bizi dituzten egoeren isla delakoan.

Jardueraren faseak:

Jarduera 2024ko maiatzean eta abuztuan antolatu eta prestatu zen, Erein Kolektiboarekin koordinatuta. Hala, jarduera programatu, edukiak zehaztu eta saioen datak erabaki ziren.

Ondoren, jarduerari buruzko informazio-eskuorriak edo gonbidapenak diseinatu ziren, partaide izan zitezkeen pertsonen artean zabaltzeko.

Jarduerak bi fase izan ditu:

Lehena maiatzean eta ekainean egin zen, La Monstrenka aretoan (maiatzaren 6an, 13an, 20an eta 27an eta ekainaren 3an, 10ean eta 14an). Bigarrenean, berriz, *Silencio* antzezlan taularatu zuten, irailaren 22an, Bilboko Bilborock aretoan, eta abenduaren 2an emanaldi hura ikusi eta aztertzeko saioa egin zen.

Laugarren edizio horretarako, foro antzezlan bat (*Silencio*) genuen esku artean, baina ez zegoen bukatuta. Lanaren estetikan aurrera egitea izan zen maiatzeko eta ekaineko lehenengo fasearen helburu nagusia, eta, batez ere, eszena bakoitzean publikoarekin partekatu nahi genuen galdera argitzea. Horretarako, funtsezkoa izan zen antzerkiaren irudiarri errepertorioa, horri esker zehaztu baikenituen *Silencio* antzerki foroaren bi galdera nagusiak. Bata transfobiaren ingurukoa da. Gizarte osoari zuzentzen zaio, eta, transfobiaren ondorioak erakustez gain, guk horretan dugun egitekoaz edo erantzukizunaz galdegiten digu. Bigarrenak, berriz, langile sexualek bizi duten babesgabetasuna aipatzen du zuzenean, egoera horrek haien aurkako era guztietako abusuak ahalbidetzen baititu.

Antzerki foroak *Silencio* lanak 6 eszena ditu:

- 1. eszena: taldearen aurkezpena
- 2. eszena: egungo egoeraren erantzule diren eragileak
- 3. eszena: Atzeritarren Legea
- 4. eszena: transfobia
- 5. eszena: sexu-lana eta babesik eza
- 6. eszena: polaritateak

Antzezlan ekainaren 14an aurkeztu zuten La Monstrenka aretoan, **30 ikus-entzule** ingururen aurrean, eta oso harrera ona izan zuen. Publikoaren eta aktoreen arteko jokoekin hasi zen aurkezpen-emanaldia; izan ere, antzerki foroa ez da ohikoa. Antzerki-mota horren berezitasuna publikoaren parte-hartzea da. Ikus-entzuleak eszenan sartzen dira, aktoreen tokia har dezakete eta ekintzaren bidez aldaketak proposa ditzakete. Aurkezpena oso hunkigarria izan zen, eta, ikus-entzuleen prestasunari esker, pertsona horien bizipenen inguruan eztabaida oso aberasgarria egiteko aukera izan genuen.

Bigarren fasean, irailean, antzezlan Bilborock aretoan taularatu zen. Koloretxe Bilboko auzo garaietako emakumeen etxearekiko lankidetzaren emaitza izan zen emanaldia. Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala auzoetako emakumeak biltzen dituen taldeak oreka sozial, ekonomiko eta politikoa lortzeko egiten du borroka, ikuspegi feministatik. Egungo sistema eta bizimoduak aldatzea ahalbidetuko duen orekaren alde dihardute, mundua (edo munduak) espazio jasangarriak izan daitezzen.

Emanaldira **150 ikusle** inguru bertaratu ziren, eta oso harrera ona izan zuen. Publikoak parte-hartze aktiboa izan zuen antzezlan taularatu osteko foroan. Horrek aukera eman zuen lanean islatzen diren egoeretako batzuen errealitateak aldatzeko, transfobiari buruzko eszenan, hain zuzen. Era berean, aktoreek aukera izan zuten beren errealitatea erakutsi eta beren kontakizunaren protagonista izateko.

Abenduaren 2an, berriz, bilera egin zen Sidálavaren egoitzan, Bilborocken irailaren 22an egindako taularatzea aztertu eta baloratzeko. Antzezlanaren baloratu eta aztertu ondoren, kritika konstruktiboa egin zuen taldeak: mugimenduen koordinazioa hobetu beharra aipatu zuten, eta hitz egitean beti publikoari begiratu behar diotela. Nolanahi ere, asko hobetu dutela nabarmendu zuten.

Gasteizek eskaintzen dituen **espazio komunitarioak** erabiltzearen alde egin da beti. Hasierako urteetan, Simone de Beauvoir Elkartearen Etxeko 3. solairua erabili zen antzerki-lantegirako, aldez aurretik Gasteizko Udaleko Herriarren Parte-hartze Zerbitzuari eskaera eginda. Aurrerago, lantegia egiteko gune zabalagoa eta egokitua behar zela ikusi zen. Horretarako, **Kolectivo Monstrenko** elkartearekin jarri ginen harremanetan, eta gure ideia aurkeztu genien. Orduan, La Monstrenka aretoa laga ziguten, eta harrezkeroztik huraxe erabiltzen dugu lantegia eta jendaurreko emanaldiak egiteko.

ARLO BERRITZAILEAK

Proiektuan bi alderdi **berritzaileak** egin dute bat.

Lehenik eta behin, **zapalduen antzerkia EAEko lurraldean praktikatzea**. Zapalduen antzerkia zapalkuntzak lantzeko tresna estetiko da, eta gorputza du oinarri. Hau da, **zapalkuntza-egoerei aurre egiteko aukera ematen duen antzerki-tresna** da, batez ere gizarte-problematika baten adierazgarri diren eta botere-harremanaren barne hartzen duten egoerei aurre egiteko baliabidea.

Augusto Boal (1931-1999) antzerkigile brasildarrak sortutako lan egiteko modua da. Paolo Freireren liberazioaren pedagogiak eraginda, desberdinkeriazko botere-harremanak antzerkiaren bidez agerian jarri eta eraldatzeko alde egin zuen apustu Boalek. Gaur egun gizarte-eraldaketarako tresna gisa erabiltzen da munduko hainbat herrialdetan.

Tresna ahaltsua da askatasun- eta segurtasun-espazioak sortzeko, non pertsonen beren oroitzapenak, emozioak eta sormena adieraz ditzaketen. Era berean, oso baliagarria da norberaren nahiak argitu eta adierazteko zein besteenak ulertzeko. Gainera, aukera ematen du gizarte-mandatuak agerian jartzeko eta estrategia berriak garatzeko, horien bidez eguneroko zapalkuntzei sormenez aurre egite aldera.

Magdalena laborategia: Barbara Santosek eta Alessandra Vannuccik 2010ean sortu zuten Magdalena laborategia. Esperientzia eszeniko horrek gorputzez, arimaz edo bihotzez emakume sentitzen diren pertsonen jasaten dituzten zapalkuntzen berezitasunak ikertzen ditu, zapalkuntza horiek gainditzeko neurri eraginkorrak sortzeko helburuarekin. Magdalena laborategia espazio estetiko, sortzaile, propositibo eta dinamikoa izatea proposatzen da, emakumeek aukera izan dezaten arte-ekoizle, ezagutza-sortzaile eta gizarte-eraldaketaren eragile gisa ikusteko beren burua eta horrela aitortu ditzaten jendaurrean ere. Ikerketarako eta partaidetzarako gunea sortzea da kontua, bertan lotsa eta errudun-sentimendua deseraikitze eta konfiantza eta ahizpatasuna ezartzeko. Esperientziak adierazpen estetikoaren eta narratiboaren arteko ibilbidea jarraitzen du.

Beste alde batetik, **zapalduen antzerkia eta taldeak bideratzeko tresna propioak uztartu dira**. Tresna horien helburua **segurtasun-giroa eta oinarritzko konfiantza** sortzea da, taldea lasaitu eta une bakoitzeko bizipenak lantzeko espazioa sortze aldera. Zapalduen antzerkiaren bidez —eta, kasu honetan, Magdalena laborategiaren bidez—, bertaratutakoek askotariko egoeratan pairatu dituzten zapalkuntzak jasotzen dira, ondoren, taldean, gizartea eraldatzeko eta desberdinkeriak ezabatzeko estrategiak pentsatzeko.

Ikuspegi feministari esker, era integralagoan eman ahal izan dugu emakumeen eraldaketen, beharren eta ezagutzen berri, identitatearekin, adoreaekin, emozioekin eta gorputzarekin lotutako alderdiak kontuan hartzen dituzten teknikak erabilia. Horrenbestez, emakumeak biktimizatzen dituzten hurbilketak saihestu ditugu, eta zapalkuntzen aurka borrokatzeko duten eraldaketa pertsonal eta sozialerako gaitasuna nabarmendu dugu.

EMAITZAK

Prostituzioan diharduten emakumeak talde bereziki zaugarria osatzen dute. Gainera, gizarteak gogor kriminalizatutako taldea da eta haien bizi-baldintzek okerrera egin dute azkenaldian. Ez dute apenas aukerarik beren bizipenak, sentimenduak eta nahiak lehen pertsonan adierazteko.

Prozesuan 11 zis emakumek eta 6 trans emakumek hartu dute parte. Partaideen % 88ren jatorria Latinoamerika da, gehienak brasildarrak baitira, eta batez besteko adina 50,5 urtekoa —gazteenak 32 urte zituen eta zaharrenak 71—.

Haientzat antzerkia **ahalduntze-prozesu bat** izan da, aukera eman diena beren gaitasunak nabarmentzeko, batez ere sormenari eta prozesuarekiko eta taldearekiko **konpromisoari** dagokienez. Azpimarragarria da guztiak bertaratu direla antzezlan prestatzeko saioetara, eta **talde-sentimendua** nabarmena izan dela.

Jardueraren balorazioa eta haien **gogobetetze-maila** jasotzeko, **sentipenak adierazteko tarte**a hartu dute, txandaka, saio bakoitzaren hasieran eta bukaeran; bertan, saiora nola iritsi diren eta lantegian nola sentitu diren adierazi diote elkarri:

«Niretzat eta taldekideentzat, gizartearen aurrean ditugun zailtasunak —bereziki trans garen emakumeonak— adierazteko eta horiek agerian jartzeko modua da» K. E. DB.

«Niretzat garaipen handia izan da adierazi ahal izatea, jendeak gure egoeraren berri izatea. Oso ondo sentitzen naiz eskubide hori izan dudalako eta hitz egin ahal izan dudalako» C.

«Atsegin dut; zerbait berria adierazteko aukera ematen digu, eta jendeari ikasteko, eta gu beti gaude ikasten. Oso-oso ondo sentitu naiz, eskola batean solasean arituko banintz bezala» S. DS. F.

«Antzerkian, emanaldi bakoitza esperientzia berri bat da; sentiarazten dit garrantzitsua naizela, banaizela nor, publikoak ikus nazakeela eta jakin gabe barruan nuen zerbait adieraz dezakedala. Antzerkia ikaragarria da, barrua betetzen dit». C. C.

*«Izugarri gustatu zait talde honetako partaide izatea, eta oso lan polita izan da. Oso garrantzitsua da niretzat eta taldekide guztiontzat honetan parte hartzea, eta emanaldira datozen pertsonen hunkidura oso nabaria da. Oso eskertuta nago aukera hau izan dudalako, eta horrelako lantegi gehiagotara joaten jarraitzea espero dut». **I. B. DS.***

*«Antzerkia esperientzia paregabea izan da niretzat; garaipen bat da bertaratzen direnei emakumeon, taldekideon, benetako bizitzaren zati bat azaltzea. Biziki atsegin dut parte hartzea, oso eskertuta eta gogobeteta sentitzen naiz» **M. S.***

*«Antzerkiaren prozesua oso garrantzitsua izan da niretzat eta taldekide guztientzat. Leihatila asko ireki dizkigu gure burua ezagutzera emateko, gauza asko egiteko gai garela erakusteko, lan bat eskatzen badugu ez diezaguten atea itxi. Gaitasun asko ditugu, bizi ditugun zailtasunak zailtasun... Antzerki honen bidez jendea hunkitzea eta gure lekuan jartzea espero dugu». **L. N. M. O.***

*«Niretzat antzerkia dibertsioa da, magia, batzuetan bizi dugun errealitate gogorretik ihes egiteko modua, kideekin konektatu eta elkarrekin barre eta negar egiteko era. Terapia aparta da egora oso zaila bizitzen ari diren emakumeentzat. Garrantzitsua da, gainera, emanaldiaren bukaeran txalotzen gaituztenean sentitzen duguna: goraka bultzatzen gaitu». **C. M. G.***

*«Antzerki-lantegia aurkikuntza itzela izan da niretzat. Lehenik eta behin, atsegin dut jakitea beste batzuek entzun egiten didatela, hor jendea niri begira dagoela, txaloka, trans emakumea eta sexu-langilea naizen aldetik nire historia era batera edo bestera konta dezakedala, ia ez baitugu ahotsik, eta trans garenok are gutxiago. Emanaldi bat dugun bakoitzean, agertokira ateratzen garen bakoitzean eta hainbeste jende ikusten dugunean entzuteko eta laguntzeko prest... izugarri gozatzen dut; entsegu bakoitzarekin eta aurkezpen bakoitzarekin gozatzen dut. Taldekideak bikainak dira eta irakasleen irakasteko modua oso ona da; niretzat, on egiten didan zerbait berria izan da. Entzuten eta ikusten gaituen jendea dagoela jakitea, gure kontakizunekin hunkitzen direla nabaritzea, inoiz ahaztuko ez dudana esperientzia da». **A. L. DO.***

Prozesuan zehar, **beren historiaren protagonista** izan dira. Konturatu dira beren kontakizuna garrantzitsua dela eta jende askok entzun nahi duela. Antzezlanak Bilborocken taularatuz bukaera bikaina eman zaio saioetan egindako lanari. Nagusiki foro formatuko antzezlanak denez, xede den gizarte-eraldaketarako estrategien bilaketara bideratu da, batez ere, publikoarekiko elkarriketa, agertokian proposamen zehatzak eginez.

Jendaurreko bi emanaldien bidez jarduerak **gizarte**an izan duen **eraginari** esker, publikoak hobeto ezagutu ahal izan du emakume horien errealitatea.

Jardunbide Egokiaren adierazle hauek azpimarratuko ditugu:

- Parte-hartzaileen balorazioa: sentipenak adierazteko tartea.
- Publikoaren parte-hartzea.
- Jendaurrean egindako emanaldien kopurua.

- Bertaratu diren pertsonen kopurua.
- Antzezlanaren beste leku batzuetan taularatzeko jasotako gonbidapenak.
- Publikoaren eta aktoreen arteko interakzioak (antzerki foroak).
- Emanaldiaren ostean publikoak aktoreei esandakoak.

KUDEAKETAN INTEGRATUA

Proiektua Erein – Zapalduon Antzerkiaren Kolektiboaren eta Arabako Hiesaren Kontrako Batzordearen (Sídálavaren) arteko lankidetzaren emaitza da, eta Nahikari programaren barruan dago. 1999tik Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekiko lankidetzaren hitzarmenaren bidez finantzatutako programa da, eta Hiesaren eta Sexu Transmisiozko Infekzioen Euskadiko Planaren dirulaguntza du 1999tik, eta Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailarena 2008tik.

Jarraipena eman nahi zaion ekintza da; izan ere, Elkarrearen helburuei erantzuten die: pertsonen hobetzen laguntzen die eta emakume zapalduen eskubideak agerian jarri eta errebindikatu egiten ditu.

ERAGINKORRA

- Nahikari programako zuzeneko arretako bi profesionalek —gizarte-integratzaile batek eta gizarte-langile batek— hartu dute parte jardueraren honen garapenean.
- Erein – Zapalduon Antzerkiaren Kolektiboko kanpoko bi profesional arduratu dira antzerki-laborategia dinamizatzeaz.
- Gizarte Langintzako eta Gizarte Integratioko praktiketako ikasleen laguntza/prestakuntza izan dugu.

Nabarmenezkoa da proiektuan parte hartu duten profesional guztien inplikazio pertsonala. Jardueraren emaitzak bat datoz horretara bideratu diren baliabideekin.

PARTE-HARTZEA ETA PRAKTIKAREN IRISMENA

Parte hartu duten emakumeak:

- Prozesuan zehar partaideen hazkunde pertsonala nabaritu da, eta, batez ere, norbere buruarekiko konfiantza handitu dela haiengan. Aste gutxitan, eraldaketa interesgarria izan dute: hasieran, ez zuten uste ezer sortzeko gai zirenik, eta, bukaeran, jendaurrean erakutsi nahi zuten beren sorkuntza-lana.
- Prozesuan zehar, parte-hartzaileek elkartzeko eta bizipenak partekatzeko beharra adierazi dute.
- Ikusi da taldea gai izan dela alderdi politikoa, alderdi kolektiboa eta bakoitzaren bizipenak identifikatzeko. Askotariko prekarietatea jasaten dute, ez bakarrik ekonomikoa, baita afektiboa eta harremanen aldetik ere, besteak beste.

- Prest azaldu dira esperientzia berri bat bizitzeko, gorputza eta burua lantzearen erronkak dakartzan emozioak zabaltzeko.
- Beren zailtasunak, tristurak, kontraesanak eta abar partekatzeko gai direla egiaztatu da, eta, ildo horretan, ausardiaren eta indarraren eredu dira. Gai izan dira babesten eta zaintzen dituen espazioan konfiantzaz aritzeko.
- Prest egon dira pobrezia, bazterkeria, identitateen eta abarren zapalkuntzek markatutako errealitateetatik hitz egiteko.

Gizarte-eragina:

Antzerki-laboretegiaren emaitza izan den antzezlan behin baino gehiagotan taularatu dute Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait agertokitan. 2024an, hain zuzen, Gasteizko La Monstrenka aretoan eskaini zuten 30 lagunen aurrean, eta Bilboko Bilborock aretoan 150 ikusleren aurrean. Publikoak antzerki foroan eta ondorengo eztabaida-saioan hartu zuen parte. Emakume horiek bizi dituzten egoerak lehen pertsona kontatuta ikusi eta entzuteak ez du inor epel uzten, eta kontzientzia soziala eta hausnarketa pertsonal zein kolektiboa sorrarazten ditu bertaratutako pertsonen artean.

DOKUMENTATUA

Urtero, Nahikari programaren Jarduera Txostena egiten da, eta bertan jaso da jarduera hau ere. Txosten hori proiektua finantzatzen duten erakundeei aurkezten zaie: Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari, Hiesaren eta Sexu Transmisiozko Infekzioen Euskadiko Planari eta Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailari.

ARRAKASTA-FAKTOREAK

Diziplinarteko lankidetzak (Nahikari programako taldearen eta Erein Kolektiboko dinamizatzaileen artekoa) eta metodologiaren aukeraketa (zapalduen antzerkia eta antzerki foroak) oso lagungarriak izan dira jarduera aurrera eramateko. Horiei esker, gure ahalgintza-helburuak bete ahal izan ditugu, maila indibidualean zein kolektiboan, bai eta eremu komunitarioan lortutako gizarte-eraginari dagokionez ere.

Eremu komunitarioko beste entitate batzuen laguntza eta haiekiko lankidetzak lagungarriak izan dira antzezlanaren mezua zabaltzeko. Kolektibo Monstrenko eta Koloretxe Bilboko auzo garaietako emakumeen etxea dira erakunde horiek.

Arrakasta-faktore nagusia **emakumeen parte-hartzea** izan dela nabarmendu behar da. Haiek dira jardueraren sustatzaile nagusiak, beren bizitzaren protagonista diren aldetik. Argi eta garbi erakutsi nahi izan dute beren errealitatea, gizartean gogoeta eragiteko, eta lortu dute.

TRANSFERIGARRITASUNA

Jarduera jardunbide egokitzaile hartu dute, jada, Arabako Foru Aldundiaren gizarte-zerbitzuek. Hain zuzen ere, 2023ko BEBAI sarien bermea du.

Kopiatu egin daiteke —beharrezko egokitzapenak eginda—, gizarte-arretako hainbat arlotan eta zapaldutako edo baztertutako pertsona-talde desberdinekin.

Eremu komunitarioko erakundeen arteko lankidetzak, metodologiaren aukeraketa egokia eta pertsonen parte hartzeko interesa izatea funtsezkoak dira jardura aurrera eramateko.

IKASKUNTZA

Antzerki-laborategia ahalduzte-prozesu bat da, partaideei aukera ematen diena beren gaitasunak nabarmentzeko, batez ere beren sormenari eta prozesuarekiko eta taldearekiko konpromisoari dagokienez. Berdinen arteko harremanak sustatzen ditu, eta horiei esker gune seguru eta erosoak sortzen da.

Prozesu horretan partaideak dira beren historiaren protagonistak. Bere bizitzako zein arlo partekatuta erabaki dezake pertsonak, eta horren garrantzia nabarmendu. Konturatzen dira historia garrantzitsua eta interesgarria dutela kontatzeko, eta jende askok entzun nahi duela.

Prozesuan zehar partaideen hazkunde pertsonala nabaritu da, eta, batez ere, norbere buruarekiko konfiantza handitu dela haiengan. Aste gutxitan, eraldaketa interesgarria izan dute: hasieran, ez zuten uste ezer sortzeko gai zirenik, eta, bukaeran, jendaurrean erakutsi nahi zuten beren sorkuntza-lana. Azpimarragarria da taldea oso errespetatsua dela, eta ahalduzte-arloan aurretik egindako lan-prozesua eta ibilbidea nabariak direla.

Bestalde, pertsona horien prekarizazioak zaildu egin du proiektuaren garapena; izan ere, haien egoerak okerrera egin du azken hilabeteetan. Ondorioz, batzuetan zaila izan da sormen-lanean zentratzea, kezka ugariarekin iristen baitziren laborategira.

Potentzialtasunak:

Urteotan emakumeek egindako ahalduzte-prozesua lagungarria izan da proiektuan batera jarduteko; izan ere, lan hori alderdi pertsonaletik abiatzen da, baina taldearen beharra du diskurtso partekatuak sortzeko eta helburu komunak zehazteko. Pertsonaren eskubideak onartzeko eta errespetatzeko neurriak ahalbidetzen ditu.

Proiektuak harremanak sustatzen ditu, eta horri esker pertsona hobeto sentitzen da eta ingurune seguru, egonkor eta atsegina sortzen da. Horrek pertsonaren parte-hartzea ahalbidetzen du. Gainera, pertsonaren eskubideak onartzea eta errespetatzea dakar.

Jarraitutasuna:

2025ean aurrera jarraitu nahi dugu proiektuarekin, orain arte egindako lanean sakontzea ahalbidetuko duen prozesu berri baten bidez. Era berean, maila publikoan ere eutsi nahi diogu ekintzari, antzerki foroak laborategian lortutako emaitzak sozializatzeko helburuarekin, 2024an egin den moduan. Antzerki foroaren ahalmen eraldatzailea azpimarratu nahi dugu, aukera ematen baitu aldatzeko, errealitate propioaren gainean antzezteko eta ekintza publikoaren bidez esku hartzeko. Hau da, zapalkuntza irauli eta desagerrarazteko estrategiak taldean entseatzeko.

PRAKTIKA AKREDITATZEN DUEN MATERIALA Jarraian, eranskinak jarri ditugu, aurretik azaldutakoa argitzen duten adibideekin.

ANTZERKI-LABORATEGIAN PARTE HARTZEKO GONBIDAPENAK – AURKEZPENAK

PROGRAMA NAHIKARI **sidálava**
945 257766

CLANDESTINAS

SILENCIO

Imparte: **erein kolektiboa**
NUESTRO PODER EN EL CENTRO

LUGAR: LA MONSTRENKA
C/ Del Cubo nº 1 (Casco Viejo)
HORARIO: de 16:00 a 19:00h.
CALENDARIO:

LUNES 2 DE SEPTIEMBRE	LUNES 9 DE SEPTIEMBRE
LUNES 16 DE SEPTIEMBRE	MARTES 17 DE SEPTIEMBRE

PRESENTACIÓN BILBOROCK:
DOMINGO 22 DE SEPTIEMBRE

Colabora: **LABORATORIO MONSTRENKA**

Financian:
EDUARDI JAUREGIZ
SIDÁLAVA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE CALIDAD JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

ERAKUNDE VASCO
DE LA MUJER

BILBOROCKEKO EMANALDIAREN KARTELA

CLANDESTINAS ANTZERKI TALDEA

SILENCIO
EL TRABAJO SEXUAL A ESCENA
SEXU-LANA OHOLTZARA

Irailak 22 septiembrea 19:00 BILBOROCK

Gratuito - Dohainik

* Isiltasun hiltza esaten dudanean, hautsi egiten dut* Wislawa Szymborska

Ilusio handiz Clandestinas Antzerki Taldearen Silencio foro-antzezianara gonbidatu nahi zaitugu: Mundu guztiak halen inguruan hiltz egin, iritzia eman eta legeak egiteaz nekatuta, bada garala sexu-langileek, isiltasuna hautsi eta hiltza har dezaten bere errealtatea erakusteko eta salatzeko, gainerakook esan behar digutena entzuten dugula: Haei baitagokie euren historiaren protagonistak izatea.

Sokolek dinamizatuko duen Afrikar Perkusio kontzertu interaktiboarekin amaituko da emanaldia.

Irailaren 22an, igandea, Bilborocken izango gaituzue arratsaldeko 7etan: Sarrera doakoa da: Ekitaldi mistoa.

Anima zaitzei

* Cuando pronuncio la palabra silencio, lo destruyo* Wislawa Szymborska

Te invitamos a la obra de teatro foro "Silencio" protagonizada por el grupo de teatro Clandestinas: Cansadas y aburridas de que todo el mundo hable, opine y legisle sobre ellas, ha llegado el momento de que sean ellas, las trabajadoras sexuales, las que rompan el silencio y tomen la palabra para mostrar y denunciar su realidad y que el resto escuchemos lo que tienen que decirnos, en definitiva, que sean ellas las protagonistas de su historia, porque pueden hacerlo y además les corresponde.

La representación terminará con un concierto interactivo de Percusión Africana dinamizado por Sokole.

Te esperamos el domingo, 22 de septiembre a las 19:00horas, en Bilborock: La entrada es gratuita: Es un evento mixto.

Animatela!

ARGAZKIAK



CUESTIONARIO DE BUENAS PRÁCTICAS

BUENAS PRÁCTICAS DE IGUALDAD EN LA GESTIÓN

TÍTULO DE LA PRÁCTICA DE IGUALDAD EN LA GESTIÓN:

Teatro para la igualdad: **“Nuestro poder en el centro. Del cuerpo a la acción Social Concreta”**

OBJETIVOS QUE PERSIGUE:

Objetivos General

- Vivenciar un proceso de empoderamiento personal y político, que partiendo del cuerpo y a través del teatro incida en la transformación de un grupo de mujeres que ejercen la prostitución.

Objetivos Específicos

- Crear una red de apoyo mutuo entre las mujeres participantes
- Ocupar el espacio público de forma protagónica
- Generar discursos compartidos entre las participantes y la ciudadanía, el público.
- Ser protagonistas de su propia historia
- Influir en la visión que tiene la sociedad sobre la realidad de las personas que ejercen la prostitución

ENTIDAD RESPONSABLE:

COMISIÓN CIUDADANA ANTI-SIDA DE ÁLAVA –SIDÁLAVA-

Nº DE TRABAJADORAS: 51 Porcentaje de mujeres sobre el total de la plantilla: 81%

Nº DE TRABAJADORES: 12 Porcentaje de hombres sobre el total de la plantilla: 19%

WEB: sidalava.org

OTRAS ENTIDADES PARTICIPANTES EN LA BUENA PRACTICA:

Erein Zapalduon Antzerkiaren Kolektiboa:

Es un espacio feminista donde utilizamos el teatro de las oprimidas, la facilitación de grupos y las dinámicas grupales como herramientas para pensarnos, entendernos y transformarnos, tanto en lo individual como en lo colectivo.

Un espacio donde ponemos en juego las formas de hacer habituales para desvelar lo obvio, buscar alternativas y profundizar en el autoconocimiento. Erein ha trabajado hasta la fecha diferentes ayuntamientos, asociaciones y movimientos sociales llevando a cabo procesos de empoderamiento a través del teatro y hemos desarrollado varias obras de teatro foro.

Kolektivo Monstrenko:

Colaboración en la cesión de la Sala monstrenka para desarrollo del taller, ensayos y representaciones públicas.

FECHA DE COMIENZO: Actividad desarrollada anualmente desde 2021.

PERSONA DE CONTACTO:

Claudia Martínez: Trabajadora social del Programa Nahikari

Ana Girón: Coordinadora de sidálava

TELEFONO DE CONTACTO:

945 257766

EMAIL DE CONTACTO:

nahikari@sidalava.org ; coordinacion@sidalava.org

PALABRAS CLAVE: Elige los **3 conceptos** con los que mas relación tiene la práctica:

	Estrategia
	Personas
	Alianzas
	Proveeduría
	Responsabilidad Social corporativa
	Modelo de Gestión
	Transversal
	Cualitativo y cuantitativo
	Gestión Sistemática, metodología o Proceso
	Diagnóstico
	Plan para la igualdad
	Estudios y análisis de género
	Integración en la estrategia
	Feminicidio
	Violencia de género
	Prevención de riesgos
	Comunicación eficaz/comunicación no violenta
	Comunicación Interna
	Comunicación externa
	Uso no sexista del lenguaje
	Transparencia salarial
	Brecha salarial
	Campañas de igualdad
	Formación y Sensibilización
	Mentoría

	Promoción libre de sesgos sexistas
	Incorporación de mujeres en ámbitos de infrarrepresentación
